



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de
Universidades e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 12koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2022-2023 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpena ematen du (A modalitatea).

Hezkuntza sailburuak, 2022ko ekainaren 21eko aginduaren bitartez (uztailaren 11ko EHAAn argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetzak beka deialdia egiten zuen 2022-2023 ikasturterako. Agindu horrek, onartutako oinarrien 2.1 artikuluan bekaren A Modalitatea jasotzen du: ikasturtean zehar egin beharreko lankidetzak.

Hautaketa-batzordeak, 2022ko abenduaren 12an, Ikasiker lankidetzak bekarako A modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 259.200 euro, A Modalitatean (I. Eranskina).

Bigarrena: Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei beka ukatzea, A Modalitatean (II. Eranskina).

Hirugarrena: Deialdi honetako beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda argitaratzea (III. Eranskina). Zerrenda horrekin erreserben zerrenda bat eratuko da; zerrenda hori baliatuko da uko-egiteren batengatik bekaren bat libre geratzen bada beka hori emateko.

Laugarrena: Ikertaldean edo ikerketa-zentroen arabera ordenatutako zerrenda, eskaera adjudikaziodunak, ukatuak eta erreserbak jasotzen dituen argitaratzea (IV. Eranskina).

Bostgarrena: Ebazpen honen kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango du interesatuak, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 12a.

Miren Artaraz Miñón

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA